

SUAREN INGURUAN IKASI GENUENA

Lehenengo gizakiak suaren inguruan esertzen ziren zirkulu bat osotuz. Zirkulu horrek komunikazioa ahalbideratu zuen beraien artean. Suaren gozotasunean eta bata-bestearen aurpegiara begiratzuz, lehenengo keinu eta hizkuntza kimuak etorri ziren. Izatez, zirkulua, korroa edo taldekatzea komunikazioarako beharrezko izan delako beti.



Geroago, euskal herriko kobazuloetan, sorginek ere, hainbat festa eta akelarre egiten zituzten suaren inguruan. Pertsonen arteko harremanetan oinarritutako festak ziren haiek. Pertsonen eta herrien artean komunikazioa areagotzen zuena.



ENTZUN ONDOKO KANTA ETA ABESTU ZEUEK ERE:


GU SORGINAK GARA

FESTA TA DANTZARA

SUAREN INGURUAN

AKELARREA DANTZAN

Egunotan, berriz, komunikazioa beste era batera ematen ari da. Mugikorren eta teknologia berrien erabilerak zirkulua apurtu du. Orain, maitasuna edo bestelako emozioak emotikono bidez adierazten ditugu eta bestearen aurpegia ez dugu ikusten hauek adieraztean.



ZELAKOA DA ORAINGO KOMUNIKAZIOA? ZER USTE DUZUE?

SAKABANATU ZAITEZTE GELATIK ETA SAIATU ZAITEZTE KOMUNIKATZEN (EMOTIKONO BIDEZ). GERO BILDU ZIRKULUAN ETA PARTEKATU EMOTIKONOAK ESKUTIK ESKURA.

IKUSTEN AL DUZU ALDERIK?